



## Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |  
Revista de estudios vascos | Basque studies review

19 | 2016  
Numéro XIX

---

# Etxepareren *darauritzut* eta Leizarragaren *dauritzan*, parez pare

Borja Ariztimuño

---



### Édition électronique

URL : <https://journals.openedition.org/lapurdum/3106>

DOI : [10.4000/lapurdum.3106](https://doi.org/10.4000/lapurdum.3106)

ISSN : 1965-0655

### Éditeur

IKER

### Édition imprimée

Date de publication : 1 janvier 2016

Pagination : 59-65

ISBN : 978-2-95534-134-6

ISSN : 1273-3830

### Référence électronique

Borja Ariztimuño, «Etxepareren *darauritzut* eta Leizarragaren *dauritzan*, parez pare», *Lapurdum* [Linean], 19 | 2016, Sarean emana---an 01 janvier 2021, kontsultatu 03 septembre 2021. URL: <http://journals.openedition.org/lapurdum/3106> ; DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3106>

---

Creative Commons - Attribution - Pas d'Utilisation Commerciale - Pas de Modification 4.0 International  
- CC BY-NC-ND 4.0

# Etxepareren *darauritzut* eta Leizarragaren *dauritzan*, parez pare<sup>1</sup>

Borja ARIZTIMUÑO  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Xarles Bidegainek jorraturiko hainbat eta hainbat gairen artean testu zaharrak eta dialektologia badirela profitatuz, bataren laguntzaz bestearen alderdi diakronikoari argi egiteko baliagarri gerta dakizkigukeen bi lekukotasun hauek izango ditut hizpide, llabur bezain zehatz izan nahi lukeen lan honetan (inolaz ere gaia agortu gabe, noski):

- (1) a. (...) *çuri neure iaun eta iabia beçala igorten **darauritzut** heuscarazco copla batzu* (...) (Etxepare, 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*-ko hitzaurrea)
- b. *Eta eguïteco huni **dauritzan** gaucetan complituqui informatua çarençât* (...) (Leizarraga, 1571, *Fedeco Confessionea* liburuxkako *Regueri* eskaintza)

Esango nuke bi adizki horiek nahiko atzendurik egon direla, hiruzpalau aldiz bakarrik idoro baitituz euskalaritzaren bibliografian. Etxeparerenaren lehen erreferentzia Victor L. A. Stempf-en 1887ko artikulu batean dago, non adizki bitxi honen osaera morfologikoa azaltzen saiatzen den (2). Hurrengo aipamena, adizki biena oraingoan, Hugo Schuchardt-ena da.

---

1. Eskerrak eman nahi dizkiet Joseba Lakarrari, Mikel Martínez Aretari eta Amaia Serranori, artikulu honen lehen idatzaldi bati egindako oharrengatik. Lan honek hiru laguntza-iturri hauek izan ditu: 1) Joseba A. Lakarraren zuzendaritzapeko “Monumenta Linguae Vasconum IV: historia, crítica y edición de textos vascos” [FFI2012-37696] (Espainiar Gobernuko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzatua); 2) Joaquín Gorrochateguik gidatzen duen “Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada” (HLMV-LHC) [GIC 10/83, IT 486-10] (Eusko Jaurlaritzak finantzatua); 3) Miriam Uribe-Etxebarriak zuzenduriko “Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara” Heziketa eta Ikerkuntza Unitatea [UFI 11/14] (UPV/EHUk finantzatua).

Austriarrak Leizarragaren obrari eginiko aitzinsolas moduko hartan ageri da eta bertan haiek azaltzen ere saiaturen da, Stempfen bide beretik (3). Artikulu honetan erakutsi nahi dudanez, asmatzen ez dutelakoan nago. Hirugarrenez René Lafonek jaso zituen bere lanetan. Lehenik Leizarragaren *dauritzan* azaltzen du bere tesian, Schuchardt baino hobekixeago bideraturik, arazoak arazo (“*dauritzan* vient de \**dagokitzan*; l’r sert à empêcher le contact de *u* et de *i*”, Lafon 1943: 151). Etxeparerena, aldiz, aipatze hutsean uzten du ikertzaile gaskoiak 1951: 312, bestelako xehetasunik eman gabe. Patxi Altunak 1980: 6 paraturiko LVPren edizioan ere aurkitu dut adizki berori, baina euskara batuan *dizkizut* dela adierazten du soilki. Azkenik, Esther Zulaikak 1998: 254 bi formei egiten die erreferentzia bere tesiaren argitalpenean, berriz ere Leizarragarenetik abiatuturik, Schuchardten hitzak (3) aipatuz.

(2) “DARAURITZUT. Ich habe sie (plur.) Ihnen. *Igorten darauritzut*, ich sende sie Ihnen ; Analyse : *d-arau-r-it-zu-t* = *d* + *it*, sie (Accusativ. pluralis); vgl. van Eys : *Étude sur l’orig. et la formation des Verbes auxiliaires basques* (1875), fol. 20 § 5; *-arau*, Stamm mit Vokalwechsel des Verbum’s : *eroan*, mitnehmen, mitführen, hier aber Hilfszeitwort im Sinne von *izan*, *ukhan*, haben ; *zu*, Ihnen (Dativ ohne die Endung *ri*) ; *t*, ich. Das *r* zwischen *arau* und *it* ist zur Erleichterung der Aussprache eingeschoben. Vgl. van Eys (*Grammaire comparée*, fol. 330) : *darozkitzut*.” (Stempf 1887: 15)

(3) “Está por *dautzan* = *dagotzan* (*dagoca* «se refiere a»). Exactamente lo mismo tenemos en Dechepare A II’ 18 *darauritzut* por *darautzut* «yo os los he». La *i* procede de la marca de plural *-it-* < *-ti-* (vide *Bask. St.* I, 32 s.); la *r* sirve para deshacer el diptongo, lo que es frecuente en vascuence: cf. *loquerē* en Voltaire (1642) por *luqueen*, p. 146 S.” (Schuchardt 1989 [1900]: 51)

Hain oihartzun eskasaren askotariko arrazoiak bururatzen zaizkit. Baliteke azalgaitzegi gertatu izana *hapax* moduko adizkiok, edo/eta garrantzi txikikoak direla irizteagatik utzi izana bazterrean; orobat litekeena da azaltzeko beharrik ere inork sentitu ez izatea, adieraz bederen, eta hein batean formaz ere, aski argiak direla-eta. Ordea, nire ustez badute esatekorik euskal aditz jokatuaren garapenaz eta, azterketa sakonago bat eginez gero, baita agian euskalkien zatiketaz ere.

Hariari zirt edo zart heldu beharrez, esango dut adizkion interesgarritasuna ez datorrela soilik *-ri-* misteriotsu horretarik, eta jarraian zerrendatuko ditut puntuz puntu aztertu nahi ditudanak:

- (4)
  - a. *egon* erroaren higadura (*-u-*)
  - b. *egon*-en *-(t)z(a)-* pluralgilea
  - c. hirugarren pertsonaren datibo-komunztadura
  - d. \**eradun*-en objektu pluralgilea
  - e. \**eradun*-en datibo-komunztadurako aldaera afrikatua (*-tzu-*)
  - f. datibo-aurreko marka (Trask-en 1997: 227 *dative flag* delakoa)

Derradan, hasteko, hemen aurkeztuko dudan analisia ez dela behar lukeen edota nahi nukeen bezain sakona, ikuspegi orokor bat emateko xedea baitu. Hori esanda, eta

(4)-n aipaturiko lehen puntuari (a) lotuaz, oro har, *-u-dun* aldaerak (oinarrizko *nago*, *hago*, *dago* formetarik kanpo) ekialdean zaharragotzat jotzen ditut (ez etimologikoki, jakina, baina forma lekukotu zehatzei dagokienez).<sup>2</sup> Erdialderago, Aresoko otoitzetan nahiz Britainiako kantuan, *gaode* eta *daode* bezalakoak lekukotzen dira, beti ere *-de* pluralgilearekin (ahozko testu zaharrak eta “buruz ikasiak” ziratekeela kontuan harturik, arkaismotzat har litezke). Mendebaldean, ostera, Lazarragak eta Landuccik *-o-dunak* dituzte gehienez ere (*zaoz*, *daoden*). Izan ere, Lazarragaren eskuizkribuan forma diptongodun ugari daude, gehiago izan arren *-g-gorde* dutenak (oinarrizkoak asko, jakina), mendebaldean gertatu ohi den bezala. Hala ere, badira nire corpusean *-u-* daukaten sartaldeko bi adizki, biak *-ke* atzizkiaz horniturik: *baleuque* ‘balegoke’<sup>3</sup> (RS 309) eta *dauquezu* ‘dagokizuke’<sup>4</sup> (Lazarraga A27).<sup>5</sup>

Hortaz, Leizarragak *dauritzan* baten ondoan zazpi *dagozkan* badakartza (eta cf. besteak beste Materraren *dagotzan*), lehenengoari zaharrago deritzot arestian aipatu zentzuan; jakina, sorburuan *\*-go-* behar zuen.

Bigarren puntuaz den bezainbatean (4b), Ariztimuño 2015a: 67-n diodan bezala, badirudi inoiz *-z(a)* pluralgilea orokorra izan zela *egon* aditzean ere, ondoren hizkera gehienetan *-de* nagusitu bazen ere. Horren arrastoak Nor-Nori motako adizkietan gorde dira; esaterako, arestion aipatu ditudanetan. Aldaera afrikatuak hainbat azalbide izan litzake,

2. Nire adizki zaharren datu-basean (ca. 1625 arte) hauek topatu ditut: Rabelais (1542) *nausu* ‘nagokizu’, Etxepare (1545) *dauke* ‘dagoke’, *daut* ‘dagokit’, Leizarraga (1571) *dauke* ‘dagoke’, *daut* ‘dagokit’, *dauku* ‘dagokigu’, *daue* (eta *dagote*, *dagozte*) ‘dagokie’, *nauzue* ‘nagokizue’, *aut* ‘hagokit’ (baina *dagoka*, *nagoka*), Etxart (1616) *nauke* ‘nagoke’, Oihenart (1657, baina garbiro hizkera zaharragoa islatuz) *dauke* ‘dagoke’, *dauko* ‘dagokio’, *auko* ‘hagokio’.
3. Lakarra 1996-n, ordea, *eduki*-ren adizkien artean sailkatzen da (cf. Aldai 1999: 384). Nire ustez, Errodrigo Zaratekoaren kantako *baleduque* bada *eduki*-ren adizki bat (ala *\*edun-ena?*), baina RSetakoak arazo semantiko (*podriase auer*) eta formalak (‘baleukate’ edo ‘balukete’ bezalako plural inpersonal gisa ulertuz gero, *-ae* edo *-ee* > *-e* gertatua zela onartu beharko genuke, bertako hizkeraren kontra; cf. genitibo *-aen* ugariak, *lenaengo*, *quehea* ‘kea’, *leuquee* ‘lukete’, etab.
4. Bigarren hori ediziozileek (Gidor *et al.* 2011: A27) *\*edun*-en adizkitzat daukate (‘dukezu’); aldiz nik, *egon*-entzat hartuko nuke, azalduko ditudan arrazoiongatik. Batetik, mendebaldeko *-au-* diptongoa 3. pertsonako adizkietan soilik gorde da lehen testuetarik (*dau(-e)* vs *dot*, *dogu*), eta huraxe ere, lekukoturiko geroaldiko forma bakarrean, monoptongaturik ageri zaigu *-ke* atzizkia gehitzean (RS 325 *doque* ‘duke’). Bestetik, Lazarragaren sistema aztertuz gero, badakusagu sistematikotasun bat non *egon* aditzak *-z(a)* pluralgilearekiko eta *-ke* geroaldiko morfemarekiko formetan (beti) galtzen duen bokalarteko herskaria. Izan ere, bi salbuespen ditu bakarrik: ediziozileen zuzenketa batek sorrarazitako *zagode* (bide batez, *-de* pluralgilearekiko bakarra), eta B16ko *nagoque* (metrikaz gain, idatzaldi nagusitik ateko poema izatea ere kontuan hartu beharrekoa dateke). Areago, eskuizkribu osoko hirugarren salbuespen bat ere bada (ediziozileek ere nabarmentzen dutena), baina Lazarragarena ez den beste esku batek pasarte batzuk argitzeko (ironia eta anbiguotasunetik urrunduz) eginiko moldaketetan ageri da: hain zuzen ere *asco dauqueçu senarric* esaldia aldatzen du *estao çure senarric* idatziaz. Horrek lehen idatzaldian ere *egon* aditza erabili delako ustea indartzen bide du.
5. Nolanahi ere, mendebaldeko *dagoz* bezalako adizkiak “berrosatuak” direlako hipotesiaz, ik. Ariztimuño *prestatzen*.

eta nahasgarri gerta daiteke orain denak banan-banan aletzea. Laburbilduz, *-tz(a)* aldaera testuinguru (morfologiko) horretan bertan sortu den ala bestetarik hedatua den da afera. Inoiz \**dagoz* ‘daude’ bezalako forma orokor bat izan balitz, pentsa genezake \**dagotz* bilaka zitekeela, euskararen joera ezagunari jarraiki (Mitxelena 1977 [1961]: 288-289).<sup>6</sup> Bukaerako *-a-*, aldiz, hirugarren pertsonaren datibo-komunztadurari legokioke (< *-o-*; cf. Leizarragaren beraren *dagoka* ‘dagokio’). Horrekin hirugarren puntuari hel diezaiokegu (4c). Izan ere, erdi-ekialdeko autoreengan *-a* aldaera hedatu da aditz batzuetan (*zaika*, *derauzka*, *dauka...*), *egon*-en Nor-Nori motakoetan bezala. Pluralgilera itzuliaz, pentsa bageneza “*dago* : \**dagoz(a)*”-ren ondoan “*dagoka* : X” bazela, orduan X horren osatzeko esan genezake bi aukera ziratekeela, oinarriztat *dago-PL* ala *dago-DAT* hartzen dugun. Lehenari dagokio, noski, Leizarragak badarabilen *dagozka* (< \**dago-z-g(i)-o-*) forma; bigarrenari, \**dago-g(i)-z-a* lekukotugabea, fonologikoki *dagotza* eman zezakeena (cf. *zaizka*, *daduzka*, *derauzka* vs. *zaitza*, *dadutza*, *derautza* eta, pluralgilearen eta beste morfemen arteko ordena ezberdinetarako, Aresoko otoitzetako *diztegun* vs. *diezkun* ‘dizkiegun’ aldaeren azalpena Ariztimuño 2015a-n).

Laugarren puntuari dagokionez (4d), Stempfek *darauritzut*-entzat eta Schuchardtek adizki berarentzat eta *dauritzan*-entzat proposaturiko azterketa morfologikoa (erroaren ondotik kokatuz *it* pluralgilea) onartzeko arrazoirik ez bide da, arestian azaldurikoa (*-tz(a)* pluralgileaz) eta hurrengo puntuan erakutsiko dena kontuan hartuz gero. Orobat esan beharrik ez bide dago Schuchardten azalpen fonologikoa (*it > ti... > i / V\_?*) ezin gerta dakioketela asebetegarri euskararen bilakaeraz zerbait dakienari (hark Mitxelenaren *FLV* oinarrizko eta ezin utzizko lana ezagutu ez izanak, kronologia arazoak medio, ez liguke horrelakorik barkarazi behar, hala ere).<sup>7</sup>

Beraz, non da *darauritzut* adizkian hain garbi aditzen dugun pluraltasunaren marka? Bada, hurrengo puntuarekin lotuz (4e), erdi-ekialdeko hainbat autorek datibo zein objektu pluraleko komunztadura (nahiz biak batera) daukaten adizkietan analogiaz orokorturik darabilten *-tzu* aldaeran gorderik, zeina sortu baitzatekeen, besteak beste, pluralgilea eta bigarren pertsonaren marka baturik (*-(t)z + -zu > -tzu*), zubereraz egun ere den bezala. “Besteak beste” esan dut, uste baitut, Ariztimuño 2015-eko proposamenei jarraiki, *-k(i)-* morfemak ere ikustekorik izan zezakeela (*derautzut* < \**deraukzut*, adibidez; berriz ere, *derauzkizut* bezalako adizkiak “berregintzat” jotzeko aukera legoke), eta hortik *-tzu* aldaera datibotasunarekin nahiz pluraltasunarekin lotzeko joera.<sup>8</sup>

Azken punturako utzi dut, hortaz, adizkion zati ilunena (*-ri-*); eta irakurlea konturatuko

6. Egia da, Mikel Martínez Aretak gogorarazi didanez, joera horrek salbuespen nabarmenak dituela, *-z* instrumentala kasu (eta *maiz* edo *ez* bezalako hitzak; cf. halaber *nai*z, baina *balitz*). Ildo horretatik, errazago izan liteke onartzea ordurako bazela *-tza* alomorfo bat (Camino 2013: 110, 28. oin-oh.) ikusirik *diotza* ‘dizkio’ bezalako adizki zaharrak azaltzeko behar dukegula (ez bada horraino *derautza* eta *dadutza* bezalakoetarik analogiaz hedatu; cf. testuan jarraian ematen den azalpena *-tza* datibodun amaierako adizki horientzat).

7. Schuchardtek lege fonetikoez eta oro har hizkuntzaren erregulartasunez zituen usteei buruz ik. Lakarra 2003: 10-13.

8. Esango nuke mendebaldean ere gertatu zatekeela pluralgilearen desagertzerik \**edutsi* laguntzailearen txistukariak asimilaturik.

zen, halaber, pluraltasunaren ezaugarri ez bada datibotasunari lotu beharrean garelara (4f). Erraz da ikusten *-i-* horrekikoa,<sup>9</sup> baina, *-r-*a epentesi hutsa ote da, aurreko ikertzaile zenbaitek proposatu bezala? Ez dut uste: euskararen barneko beste bilakaera baten aurrean gaudela begitantzen zait, zeina (itxura batean) erregularra izan ez arren, paraleloak badituen, bai eta beste bilakaera batekiko loturaren bat ere, Joseba Lakarrak iradoki didanez. Proposatzen dudana hau da: *dauritzan* eta *darauritzut* adizkietako *-ri-* morfema oso bat dela, < *-gi-* hain zuzen ere, *-ki-*ren aldaera zaharra (cf. *egogi* : *egoki*, *edugi* : *eduki*,<sup>10</sup> etab.; Trask 1995). Izan ere, *-VgV-* > *-VrV-* zenbait hitzen bilakaera eta etimologietan proposatua izan da (argienetako batzuk aipatzearen, *arate* < *agate* < *a(h)ate*, *sorotsi~zorotzi* < *so egotzi* dela, cf. Mitxelena 1977 [1961]: 286, 12. oin-oh., eta hor ditugu Lakarraren 2009: 584 proposamena *ulertu* < *\*urertu* : *igerri* bikotearen loturaz, edo Mitxelena 1977 [1961]: 339 eta Hualde 2005: 300 kontuan hartuz *belarri* < *\*berarri* < *begarri* < *bearri* < *beharri* < *\*beha-(g)arri*). Are gehiago, Lakarrak berak diostanez, baliteke beste bilakabide baten “ispilu-irudi” moduko bat izatea, hain zuzen ere konposaketako *-r#* > *-h#* zaharrarena (cf. Lakarra 2015: 355, eta han aipatzen den Mitxelena 1977 [1961]: 337).

Horrenbestez, bestelako proposamen hoberik ezean, “etimologia” hauek proposatzen ditut Etxepareren eta Leizarragaren adizki bakoitzok azaltzeko:

9. Nahiz eta datibo-aurreko markaren alomorfo hau ez den ohikoena (ia guztiz ezezaguna, izan ere, *egon*-en eta *\*eradun*-en adizkietan). Morfema honen beste agerpen bitxi baterako (eta horrelakoetarik ondoriozta daitekeenaz) ikus Ariztimuño 2015b.

10. Ariztimuño 2013: 138, 38 oin-oh.-ean *erauki* eta *hitzeraduki* lexikalizatuak (OEH s.v.) aipatzen eta proposatzen ziren laguntzaile ditransitibo gisa gramatikalizaturiko eta *\*eradun* gisa berreraiki eta aipatu ohi den aditzaren “egiazko” formatzat, *\*edun*-en kausatiboak laguntzaile gisa gramatikalizatu aurretik zukeen esanahitik azal daitezkeela argudiatuak (cf. Mounole 2015). Aldiz, OEHk dakarren beste *eraduki* berriagoa litzateke, esanahi aldetik gardenagoa den heinean (‘tener, mantener’ hiztegiaren arabera, beharbada hobeto ‘hacer mantenerse’; cf. s.v. *eduki* laugarren adiera, kontuan harturik lehen hirurak batera eman litezkeela, laugarren hau izanik bereziena).

Bada, erka bedi Nafarroa ekialde muturrean lekukoturiko *era(u)gi~eragu* aditzarekin (OEHk ‘traer’ adieraz dakarrena). Izan ere, antzekotasunak antzekotasun, ez dut uste hura *egar(r)i* (‘soportar’, ‘utilizar’) ezagunxeagoarekin loturarik duenik, esaterako metatesi bidez-edo. Azken hori, zehazki, *ekarri*-ren aldaera zaharra dela esango nuke, edo etimologikoki lotuak daudela behinik behin.

Beraz, testuan aipatu bezalako bikoteei *erauki* : *eraugi* pareta gehitzeko moduan garelara pentsatzen dut.

- (5) a. *darauritzut* < \**da*<sup>11</sup>-*rau-gi-z-zu-t*  
 b. *dauritzan* < \**da-go-gi-(t)z-o-(a)n*<sup>12</sup>

### Erreferentziak

Aldai, Gontzal. 1999. Notas sobre la última edición de los *Refranes y Sentencias* de 1596. *Fontes Linguae Vasconum* 82. 383-392.

Altuna, Patxi. 1980. *Linguae Vasconum Primitiae. Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia - Ediciones Mensajero.

Ariztimuño, Borja. 2013. Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar. In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, 41-60. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Ariztimuño, Borja. 2015a. Axularren *-(k)ai*o aditz-bukaeraz: datibo(-ikurr)aren eta denbora-aspektu-moduen historiako gaiak. *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun (Lapurdum, ale bereziak 3)*, 81-113.

Ariztimuño, Borja. 2015b. Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz). In Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 117-140. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Ariztimuño, Borja. *prestatzen. Euskarazko jarrera-aditz batzuen arteko harremanez*. UPV/EHUko izkribu argitaragabea.

Camino, Iñaki. 2013. Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia. In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, 77-140. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Hualde, José Ignacio. 2005. Azentua eta etimologia. In Euskaltzaindia (arg.), *Nerekin yai*o nun (= IKER 17), 297-303. Bilbo: Euskaltzaindia.

Lafon, René. 1943. *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. Bordele: Delmas.

Lafon, René. 1951. La langue de Bernard Dechepare. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* 7: 3. 309-338.

Lakarra, Joseba A. 2003. Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción. *ASJU* 37: 1. 261-391.

Lakarra, Joseba A. 2009. Adabakiak /h/-aren balio etimologikoz. *ASJU* 43. 565-596.

Lakarra, Joseba A. 2015. Hiru hasperen haboro. In Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 349-378. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Mitxelena, Koldo. 1977 [1961]. *Fonética Histórica Vasca* (2. argitalpena). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [berrargit. in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.). 2011. *Luis*

11. Alde batera utzi dut, azterketa honetan, *derau-* vs. *darau-* aldakortasunaren afera.

12. Nahikoa litzateke berez *-n* horrekin, baina adizkiaren zahartasunak *-a-* bokaldun aldaera ene ustez zaharragoa ere kontuan hartzera narama (cf. Ariztimuño 2013: 53-56); azken emaitza, edonola ere, berdina litzateke.

---

*Michelena. Obras completas*, vi. liburukia. Vitoria-Gasteiz - Donostia: UPV/EHU - Gipuzkoako Foru Aldundia].

Mounole, Céline. 2015. Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz. In Beatriz Fernandez & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasolari Gorazarre. Homenatge, Homenaje*, 473-490. Donostia: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Schuchardt, Hugo. 1989 [1900]. *Introducción a las obras de Leizarraga* [I. Ruiz Arzalluz eta J. M. Vélez Latorreren itzulpena] (= *ASJU*ren gehigarriak XII). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Stempf, Victor L. A. 1887. Commentar und Glossar zu Bernard Dechepare's Baskischen Poesien (1545). *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* 20. 4-22.

Trask, R. L. 1997. *The History of Basque*. New York: Routledge.

Zulaika, Esther. 1998. *Ioanes Leizarragaren aditza*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.